


INFLAZIOA

Inflazioak mailarik apalena jaso du 2016ko abuztutik

KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



Martxoko KPI indizea %0,1ean kokatu zen, joan den otsaileko datuekin alderatuta zazpi hamarren jaitsi ondoren. Hori da 2016ko abuztutik izan duen mailarik baxuena. Kontsumoko prezioen igoeraren apaltzea erregaien prezioen beherakada nabarmenaren ondorio izan zen. Horrela, inflazioak bi hilabetez jarraian egin du behera eta urte hasieran jaso zuen %1,4 tasa hartatik urrundu da.

KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa eta ekarpenak


	2018	2019	2020ko martxoa	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	1,6	1,0	0,1	0,1
Azpiko inflazioa (%81,2)	0,9	1,0	1,2	0,9
- Elikagai landuak (%13,9)	0,9	0,6	1,7	0,2
- Industria ondasunak (%24,4)	-0,1	0,3	0,7	0,1
- Zerbitzuak (%42,9)	1,5	1,6	1,4	0,6
Hondar inflazioa (%18,8)	4,6	0,8	-4,5	-0,8
- Landu gabeko janariak (%7,8)	2,9	1,3	3,6	0,3
- Energia (%11,0)	5,9	0,4	-9,9	-1,1

AZPIKO INFLAZIOA



HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



BRENT MOTATAKO PETROLIO UPELAREN EGUNEKO PREZIOA

Dolarrak upeleko



Erregaien prezioek beheranzko joerarekin jarraitu zuten. Izan ere, Covid-19ko pandemiak sortutako krisiak mundu mailako petrolio eskariaren hondoratze nabarmena eragin zuen, apiril amaieran bere prezioa upel bakoitzeko 5 dolar pasatxoan kokatuz, 1985an hasi zen serie osoan lortu ez ziren balioak direlarik. Horregatik guztiagatik, garraioa eta etxebizitza izan ziren, berriz ere, inflazioari eusteko eragin handiena izan zuten

taldeak, lehenengoak 4,1 puntu egin baitzuen behera eta bigarrenak, berriz, puntu oso bat. Halaber, aisialdiak eta kulturak %0,3tik -%0,3ra egin zuten behera, pakete turistikoaren prezioak jaitsi egin zirelako. Aitzitik, elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak garestitu egin ziren, koronabirusaren krisiak eragindako hornikuntza arazoengatik.

KPI TALDE NAGUSIAK

Urte ateko aldakuntza tasa. 2020ko martxoa

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	0,1	0,0	0,7
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	2,7	2,5	2,3
Edari alkoholdunak eta tabakoa	-0,2	0,5	3,0
Jantziak eta oinetakoak	1,2	1,1	1,0
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	-4,7	-4,8	-0,4
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	1,3	0,4	0,7
Osasuna	0,4	0,3	0,8
Garraioa	-2,5	-2,4	-0,6
Komunikazioak	0,8	0,7	-1,3
Aisia eta kultura	-0,3	0,0	0,1
Hezkuntza	1,4	0,9	0,4
Jatetxeak eta hotelak	1,7	1,9	1,7
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	1,3	1,4	1,7

Iturria: INE, Eurostat eta Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa.